

## NATURZALEON III. ARGAZKI LEHIAKETA

### OINARRIAK:

1. **Antolatzailea:**

Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

2. **Partehartzaileak:**

Naturzalea den edonork parte hartu dezake, bere adina edozein dela ere. 18 urtetik beherakoek guraso edo tutorearen baimena beharko dute.

3. **Gaia:**

**UNANUE Landa Parkea eta inguruak.** Aurten Haritzalde arreta berezia ari zaio eskaintzen Añorgako gainari. Sutsu borokatzen arigara Belartza 2 makroproiektua gelditzeko eta Unanue Landa Parkea egi bihurtzeko. Landa eremua eta gelditzen zaigun gerriko berdea aldarrikatu eta defendatu nahi dugu. Beraz, argazkietarako gaia horixe izango da: Natura, biodibertsitatea, landa eremua, paisaia, landa-zabala, basooa, zuhaitzak, landareak eta loreak, fauna, baserriak eta bizimodua... Lagunduko al diguzu Añorgako altxorak ezagutzen?

4. **Argazkiak aurkezteko prozedura:**

- Argazkiak 2018ko maiatzaren 21etik ekainaren 15era arte aurkeztu ahal izango dira.
- Partehartzaile bakoitzak gehienez 3 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

- ☒ Argazkiak JPG formatuan bidali beharko dira izen-emate inprimakiarekin batera.
- ☒ Argazkiek gutxienez 300 kb eta gehienez 4 mb izango dituzte.
- ☒ Parte hartzaileak izen-emate orria bete beharko du Haritzalderen web orrian egokituko den formularioa betez: izen-abizenak eta telefono zenbakiarekin, Haritzaldeko kidea den ala ez adieraziz.


## 5. **Epaimahaia:**

Epaimahaiak irabazleak hautatuko ditu. Haritzaldeko Zuzendaritzako bi kidek osatuko dute:

- Aitziber Egaña
- Xabier Rubio

## 6. **Sariak:**

1. Saria: Asteburu bat (2 gau+gosariak) 2 lagunentzat [SASTIZAR Landetxean](#), Areso (Nafarroa)+ Haritzaldeko sudadera
  2. Saria: 50€ Kultura-bonoa + Haritzaldeko kamiseta
  3. Saria: 25€ Kultura-bonoa + Haritzaldeko kamiseta
- Parte hartzen duten Haritzaldeko kideen artean 50 €ko Kultura-bonoa zozketatuko da.
  - Parte hartzaile guztien artean 25€ko 2 kultura-bono eta sudadera bat zozketatuko dira.



HARITZALDE  
naturzaleen elkartea

## 7. ***Epaia eta sari banaketa:***

Epaia ekainaren 18an ezagutzera emango da eta sari banaketa ekainaren 20an izango da Añorgako Jolas Etxean, 19:30etan.

## 8. ***Eskubideak:***

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Haritzalde Naturzaleen Elkartearen esku geldituko dira, egoki deritzon jarduera eta formatuan argitaratu ahal izateko, beti ere irabazi asmorik gabe eta egilearen izen- abizenak aipatuz.

## 9. ***Onarpena:***

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar ezinbestean eta agertu daitezkeen edozein ustekaberen aurrean antolakuntzak erabakiko du, erabaki horren aurrean ezin izango delarik apelatu.

## Laguntzaileak



[www.tamayo.es](http://www.tamayo.es)

[SASTIZAR LANDETXEA](#)

<http://casaruralsastizar.blogspot.com.es/>

Informazio guztia: [www.haritzalde.org](http://www.haritzalde.org)